



Balioen bidetik: pertsonaren garapena Lanbide Heziketa dualean



Uzt. 28 2021

Kod. H25-21

Mod.:

Online zuzenean Aurrez aurrekoa

Edizioa

2021

Jarduera mota

Uda Ikastaroa

Data

Uzt. 28 2021

Kokalekua

Miramar Jauregia

Hizkuntzak

Euskara Gaztelera

Balio akademikoa

10 ordu

Antolakuntza Batzordea

Fundación
BBVA



Azalpena

Uda Ikastaroa aurrez aurre ospatuko da eta online zuzenean parte hartzeko aukera ere egongo da ZOOM bidez. Matrikula prozesuan nola parte hartuko duzun aukeratu: aurrez-aurre edota online zuzenean.

Lanbide Heziketak gure herriaren garapen ekonomikoan eta sozialean garrantzia handia du. Alde horretatik, Lanbide Heziketako zentroek, beste eragileekin lankidetzan estuan, ahalegin berezia egin dute organizazio- eta pertsona-mailan berrikuntzak egiteko (heziketa-eskaintza eta titulazioak gaurkotzea, ikaste-irakaste metodoak berritzea eta erronketan oinarrituriko ikaskuntza, zeharkako kompetentzien garrantzia). Horrez gainera, Lanbide Heziketako zentroen eta enpresen artean lotura estuak ere sortu dira eta zentroen eskaintza bailarako sektore ekonomikoetara erabat doitzea lortu izan da.

Bide horretan, munduko transformazio teknologikoak, komertzialak eta sozio-kulturalak direla eta, hurrengo urteotan ikasleen garapen teknologikoan eta profesionalean ahalegin handia egin beharko da. Baina hori gutxi ez, eta pertsonaren garapen morala eta kulturala ere garrantzitsuak izango dira, eta horrek lan onaren kultura biziberritzea eskatzen du. Hori dela eta, ikastaro honek pertsonaren dimentsio etikoan arreta ipiniko du, Bidetik Fundazioak pertsonaren formazioa eta garapena bultzatzeko duen egitasmoaren berri eman eta horretan sakontzeko asmoarekin.

Zehazki, Lanbide Heziketa dualeko ibilbide industrialean, zentroen eta enpresen arteko lankidetzaren bidez, ikaslearen formazioan pertsona, gaur egungo munduan, enpresan erantzukizunez aritu dadin jabetzearen garrantziaz hitz egingo dugu.

Helburuak

Munduaren transformazio komertzialek, teknologikoei eta sozio-kulturek enpresei sortzen dizkieten erroka berriak ulertzea.

Gaur egungo enpresetan pertsonaren dimentsio profesionalak eta etikoak duten garrantziaz jabetzea.

Pertsonaren dimentsio etikoa zertan datzan eta nola ulertzen dugun adostea.

Euskalherrian tradizioz jasotako kulturaren pertsona erantzuleak eta lan onak izan duten garrantzia argitzea.

Lanbide Heziketan pertsonaren dimentsio etikoa nola landu daitekeen eztabaidatzea.

Ikastaroaren laguntzaile espezifikoak



Programa

2021-07-28

09:15 - 09:30 Erregistroa

09:30 - 09:45 Jardueraren zuzendaritzaren aurkezpena

Jesus Alberdi Areizaga Bidetik Fundazioa - Bidetik Fundazioa

09:45 - 10:30 “Ética y Valores: retos profesionales en la empresa del siglo XXI”

Pedro Manuel Sasia Santos Universidad de Deusto, Centro de Ética Aplicada - Profesor Titular

10:35 - 11:20 “Lan onaren balioa: pertsonaren dimentsio etikoa Lanbide Heziketan”

Andoni Eizagirre Eizagirre Mondragon Unibertsitatea - Profesor Titular
Nagore Ezkurra Zazpe Bidetik Fundazioko ikerketa-arduraduna

11:20 - 11:50 Atsedena

11:50 - 12:50 Mahai ingurua: “Kortaren Bidetik: educación, valores y empresa”

Andoni Eizagirre Eizagirre Mondragon Unibertsitatea - Profesor Titular (Moderatzailea)
Jose Eduardo Junkera Perez Egile Corporation XXI, SL - Consejero Apoderado
Javier Roquero Ussia Salto Systems - Director General
Diego Abellán Sáenz del Castillo EGIBIDE - Coordinador del proyecto Balio2d

12:50 - 13:15 Itxiera

Jesus Mari Mujika Arakistain Bidetik Fundazioa - Bidetik Fundazioa

Zuzendaritza



Andoni Eizagirre Eizagirre

Mondragon Unibertsitatea, Irakasle Titularra

Mondragon Unibertsitateko Irakasle Titularra. Filosofian Doktorea.

Irakasleak



Diego Abellán Sáenz del Castillo

EGIBIDE, Balio2d egitasmoaren koordinatzailea Lanbide Heziketako irakaslea Telekomunikazio ingeniaria



Jesus Alberdi Areizaga

Joxe Mari Kortaren Bidetik

Bidetik Fundazioa



Nagore Ezkurra Zazpe

Bidetik Fundazioa



Jose Eduardo Junkera Perez

Kontseilari Ahalduna, Egile Corporation XXI, SL



Jesus Mari Mujika Arakistain

Bidetik Fundazioa



Javier Roquero Ussia

Zuzendaria Nagusia, Salto Systems



Pedro Manuel Sasia Santos

Deustuko Unibertsitateko Irakasle Titularra. Etika Aplikatuko Zentrua

Matrikula prezioak

AURREZ AURRE

2021-07-28 ARTE

MATRIKULA DOAN

0 EUR

ONLINE ZUZENEAN

2021-07-28 ARTE

MATRIKULA DOAN

0 EUR

Kokalekua

Miramar Jauregia

Mirakontxa pasealekua 48, 20007 Donostia

Gipuzkoa